

## [Eusk/Cast] Landa—eremua mugitzen ari da / El campo se mueve

REBEKA GONZÁLEZ DE ALAIZA, ROBERTO RUIZ DE ARKAUTE - MIEMBROS DE ARABA BIZIRIK :: 10/06/2024

En este despertar confluyen diferentes causas que colman la capacidad de resistencia de los pueblos dispersos en el territorio.

### [Euskara]

#### **Landa—eremua mugitzen ari da**

Esnatze horretan hainbat kausa elkartzen dira, eta lurraldean sakabanatuta dauden herrien erresistentzia-ahalmenak bete—betean erantzuten die.

Iraultza berdea deiturikoan, traktorea nekazaritza-desarrollismoaren fenomeno emergente gisa lehen aldiz agertu zenetik, gure herrietako bizitzak izugarritzko eraldaketa jasan du, aurrerapenak ezarri dizkion aldaketei lotuta. Lehenik eta behin, lursailen kontzentrazioak etorri ziren, eta, nagusiki biziraupeneko nekazaritza merkatu—nekazaritza bihurtzeaz gain, monolaborantza, hazi autoktonoen desplazamendua eta zapaltzen zituzten lurreko ziklo naturalen behaketaren eta esperimentazioaren oinordeko diren nekazarien ezagutza-praktikekiko mespretxua sustatu zituzten. Laborantza-lurra menderatzeko erregai fosilak, ongarriak eta biozida sintetikoak erabiltzeko betebeharrak saihestezina beharrezkoa bihurtu zen nekazaritzaren praktikatik lasai bizi ahal izateko. Aldaketa horietara egokitu ez ziren pertsonak bizirauteko beste modu osagarri bat bilatu behar izan zuten, edo, besterik gabe, desagertu egin ziren.

Landa-eremuk eraldaketa erradikal horiek, nekazaritza-prozesuen zirkulartasuna haustez gain, erabateko kanpo-mendekotasuna sortu zuten hazien jabe berriekiko, nitratoen, fosfatoen eta pestiziden ekoizle eta merkaturatzaileekiko. Aldi berean, landa-eremuan lan egiten duten pertsonak gero eta makineria espezializatuagoa eta neurrigabeagoa erosi behar izaten dute, eta bizitza osorako zorpetzean murgiltzen dira, lurralde-gaitasunetara egokitutako beste eredu batzuetara igarotzeko ahaleginak itzaliz. Gero eta laborantza-lur gehiago behar da nekazaritza-unitate bat ekonomikoki bideragarria izan dadin. Nekazaritza-ekologiako ekoizpen-moduetara igarotzen ari diren nekazariak bizirauteko zailtasunak dituzte, besteak beste, lurrak zentralizatzeko eta bereganatzeko joeraren aurka doazelako, horiek baitira dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten ereduak.

Gobernu guztiak, interes merkantilistaren morroi, landa—eremua astintzen duen atsekabeak sakontzen duten politika berberak bultzatzen ari dira. Horren adibide dira, besteak beste, Merkataritza Askeko Tratatuak, jatorrian eta helburuan prezioen indizea igotzeari buruzko arauketarik eza, merkataritza-gune handien diru-sarrerei mesede eginez; nekazarien eta abeltzainen belaunaldi berriei lurra eskuratzeko erraztasunean inplikaziorik eza; tokiko salmenta-merkatuei buruzko araudi itogarria; zerbitzu mediko eta eskola-sistema urriak desagitea...

Inbertsio-funtsek kudeatutako transnazional monopolikoek munduko elikadura kontrolatzea helburu duten joera nagusi horiek elikatzeke eskubidea ahultzen ari dira, ahalik eta etekinik handiena lortzeko. Langileentzako elikagai merkeak ekoizteko ilusioa desagertzearekin batera, lurraren emankortasunak erakusten duen akidura, merkantilizazioaren menpeko harreman horren ondorio zuzena baita, kezkarria da. Lurraldera errotuta dagoen nekazaritza eta abeltzaintza amildegira eramaten duen eredu baten gainbeherarekin batera, orain oligopolio energetikoaren enpresak landa-eremua bortxatzen ari dira laborantza-finka eta herri-mendi ugari desjabetzeko. Arpilatzea eta espoliatzea dira negozio-nitxo berria, merkatu-harremanak berregituratzeko gai izan daitekeena, ugaltzeko balio izan duten energia-iturrien eskasiari aurre egin behar dion mundu batean.

Mobilizatzeko arrazoirik ez da falta. Eta ultraeskuina beti adi egoten da kaleko nahigabetik atera dezakeenari, ez baita gutxi, landa-eremuan bizi den edo bere sentitzen duen jendeak egiten dituen aldarrikapenetan sartzen saiatzen da. Jende horri nekazaritza, abeltzaintza, lurralde-oreka eta natura- eta landa-ekosistemen zaintza ez zaio batere interesatzen. Eredu hori erabat arrotza zaie, landa-eremua alegia, beste eremu mota batzuk askoz ere gertukoagoak zaizkie, baina hori beste upeleko sagardoa da.

Korrante kapitalista horrek kaleko protesta batzuen babes eta haserrea bereganatzeko duen trebetasuna izan liteke alor parlamentarioan errebindikazio hauek jasaten ari diren utzikeriaren sintoma, progresismotik hasi eta kontserbadurismo zaharkitueneraino, ez baitira gai ezarritako esparru politiko instituzionalean ezkerretik erantzun alternatibo bat emateko. Langileen artean banatzeko baliabide nahikorik ez dagoenez, onura gehiago lortzeko irrikaz diharduen kapitalaren eraso dela eta, eskuinak, bere forma guztietan, mendeko klaseen sektoreei gero eta presio handiagoa egiten ari zaien eta berez sortzen ari diren erantzunen erradikaltasunaz jabetu nahi du. Eskari horiei emandako erantzun instituzionalak alternatiba gisa erakusten ditu ezarritako ordenaren araberrako irtenbide berberak, errotiko trantsizioarako erabakigarriak ez diren aldaketa txikiekin apainduak. Aldi berean, iraganean borrokan erabakigarriak izan ziren zenbait eragileren kasuan, komunaren kudeaketa unibertsalean oinarritutako paradigma-aldaketaren oinarriak ezartzen dituzten beharrezko eraldaketa emantzipatzaileak onartzeko ezintasuna ikusten da.

Hala eta guztiz ere, oraindik ere badira mugimendu batzuk egungo aldrebeskeriari aurre egiten jarraitzen dutenak. Eta ez dira gutxi. Lurrari lotzen zaizkio eta naturaren fluxuei lotutako itxaropena sustraitzen dute. Lurraldearen biziraupenerako defendatzen dute, alternatiba eraldatzailearen lekua hartuz.

Beraz, gaur faxista eta nazi hauen arribismo bizkarroia salatu besterik ez dugu egin nahi, kalea gorrotoarekin astintzen dutelako eta hainbat herri-ordezkariek egiten ari diren bidezko aldarrikapenak bereganatu nahi dituztelako.

Joan den larunbatean, aldarrikapen horien inguruan manifestazio jendetsua egin zen Gasteizen. Kanean frogatu zen berriro posible dela kausa komuna egitea, esparru sozial eta are ideologiko askotatik, aurre egin behar diogun lurraren jabetza galtzearen mehatxuaren aurrean. Arerioak, boteretsua eta erakundeekin ondo lotua, "perroflautas" esaten digu, faxista eta nazi horiek ere erabiltzen duten terminoa. Bitxia da kointzidentzia, agian, zeren, azken batean, haien matoiak besterik ez baitira.

Landa-mundua errespetatzea eta ingurune hori sakrifizio-lurralde ez bihurtzea aldarrikatzen dugunean, erabat sinetsita gaude landa-eremuak ez duela hiri-munduarekiko gutxiagotasun-egoeran egon behar. Beharrezkoa dela ondo kontserbatutako landa-ingurunea eta ondo babestutako ingurune naturala. Pertsona guztien ondarea da, eta kapitalismoaren paradigma berriak "trantsizio berdea" deitu duenak ezin du suntsitu. Horregatik, funtsezkoa iruditzen zaigu aldarrikapen horiek lotesleak izatea eta lehen sektorearen jarduera estrategikotzat jotzea eta ingurune naturala benetan errespetatzea.

Larunbatean Gasteizko kaleetan indarrez entzun zen aldarrikapena "HORRELA EZ" izan zen, argi geratu zen. Baina izan zen beste eslogan bat, enpresa handien mesederako jazarpen eta eraipen horren aurkako jarrera sendoago islatzen zuena: "ENERGIA KAPITALISTA EZ DA INOIZ IRAUNKORRA IZANGO".

Argi geratzen da, beraz, zeintzuk diren errebindikazioak eta zeintzuk diren batzen gaituzten printzipio orokorrak: errespetua, elkar zaintzea eta zeharkakotasuna. Hor ez daude eta ez dira espero faxista eta nazi horiek, duela ez asko gure landa—eremuko ezpondak eta arekak lotsaren ta desohorearen leku bihurtu zituztenak.

Rebeka Gonzalez de Alaiza, Roberto Ruiz de Arkaute - Araba Bizirik eko kideak

VITORIA-GASTEIZ, 2024ko ekainak 6

## **[Castellano]**

### **El campo se mueve**

En este despertar confluyen diferentes causas que colman la capacidad de resistencia de los pueblos dispersos en el territorio.

Desde la primera aparición del tractor como fenómeno emergente del desarrollismo agrario en la llamada revolución verde, la vida de nuestros pueblos ha ido experimentando una transformación enorme ligada a los cambios que el progreso le ha ido imponiendo. Primero vinieron la concentraciones parcelarias que, aparte de transformar una agricultura mayoritariamente de subsistencia en otra de mercado, fomentaron el monocultivo, el desplazamiento de las semillas autóctonas y el desprecio a las prácticas de conocimiento campesinas herederas de la observación y experimentación de los ciclos naturales en la tierra que pisaban. La obligación insoslayable del uso de combustibles fósiles, abonos y biocidas sintéticos sobre los que dominar la tierra de cultivo se hizo necesaria para poder vivir holgadamente de la práctica de la agricultura. Las personas que no se adaptaron a estos cambios tuvieron que buscar otra forma complementaria de subsistir o simplemente desaparecieron.

Estas transformaciones radicales en la zona rural, además de romper la circularidad de los procesos agrarios, crearon una dependencia exterior total hacia los nuevos dueños de las semillas, de los productores y comercializadores de nitratos, fosfatos y de pesticidas. A la vez, las personas que trabajan el campo se van viendo sometidas a comprar maquinaria cada vez más especializada y desproporcionada sumergiéndoles en un endeudamiento de por vida que apaga con las tentativas de transitar hacia otros modelos adaptados a las

capacidades territoriales. Cada vez se necesita más concentración de tierra de cultivo para que una unidad agraria sea viable económicamente. Las personas campesinas que están transitando hacia formas de producción agroecológica ven incrementadas sus dificultades de supervivencia precisamente por ir, entre otros motivos, contra la tendencia de centralización y acaparamiento de tierras que son los modelos que están subvencionados públicamente.

Todos los gobiernos de turno, serviles al interés mercantilista, están alentando las mismas políticas que ahondan en la pesadumbre que azota al campo. Ejemplo de ello son los Tratados de Libre Comercio; la nula regulación sobre el incremento del índice de los precios en origen y destino favoreciendo los ingresos de las grandes superficies comerciales; la inexistente implicación en el facilitamiento del acceso de la tierra a nuevas generaciones de agricultoras y ganaderas; la atosigante normativa entorno a los mercados de venta local; el desmantelamiento de los ya escasos servicios médicos y sistemas escolares...

Estas tendencias capitales que tienen como objetivo el control de la alimentación mundial por parte de transnacionales monopólicas gestionadas por fondos de inversión, están socavando el derecho a alimentarnos en aras de conseguir el máximo beneficio. Al tiempo que la ilusión de producir alimentos baratos para la población obrera se desvanece, las muestras de cansancio que está dando la fertilidad de la tierra, consecuencia directa de esta relación subordinada a su mercantilización, son alarmantes. Junto al desmorone de un modelo que arrastra al precipicio a la ya esquilhada agricultura y ganadería arraigada al territorio, ahora las empresas del oligopolio energético vienen violentando a la zona rural para expropiar numerosas fincas de cultivo y montes comunales. El saqueo y expolio al que nos quieren someter es la forma dada al nuevo nicho de negocio que pueda ser capaz de reestructurar las relaciones de mercado en un mundo que se enfrenta a la escasez de unas fuentes de energía que habían servido para su reproducción.

Motivos no faltan para la movilización. Y la ultraderecha siempre atenta a lo que puede sacar del descontento de la calle, que no es poco, intenta apuntarse a las reivindicaciones que hacemos la gente que vive o siente como propio el campo. A estos individuos la agricultura, la ganadería, el equilibrio territorial y el cuidado de los ecosistemas naturales y rurales no les interesa lo más mínimo. El campo les es algo completamente ajeno, por lo menos el campo rural, otro tipo de campos les son mucho más familiares, pero eso es harina de otro costal.

La habilidad con que esta corriente capitalista está patrocinando y acaparando el enojo de ciertas protestas callejeras podría ser el síntoma del abandono a que están sometidas estas reivindicaciones por parte del arco parlamentario, desde el progresismo más abanderado al conservadurismo más rancio, incapaces de dar una respuesta alternativa desde la izquierda en el marco político institucional establecido. Entendiendo el contexto actual dado de falta de recursos suficiente para repartir entre las personas trabajadoras debido a la ofensiva del capital que se agita ansioso en busca de nuevos beneficios en constante caída, la derecha en todas sus formas pretende adueñarse de la radicalidad de las respuestas que van surgiendo espontáneamente ante la presión cada vez mayor a los sectores de las clases subalternas. La respuesta institucional dada a estas demandas muestra como alternativas las mismas soluciones seguidistas del orden establecido adornadas con pequeñas variaciones que no

son determinantes para una transición de raíz. Al mismo tiempo se observa en ciertos agentes, que en el pasado fueron determinantes en la lucha, una incapacidad de asumir las transformaciones emancipatorias necesarias que tracen las bases de un cambio de paradigma basado en la gestión universal de lo común.

Sin embargo, todavía existen movimientos que siguen resistiendo y oponiéndose al desvarío actual. Y no son pocos. Se sujetan a la tierra y enraizan la esperanza sujeta a los flujos de la naturaleza. Defienden el territorio para su supervivencia, ocupando el lugar de la alternativa transformadora.

Por lo tanto, hoy simplemente queremos denunciar el arribismo parásito de estos fascistas y nazis que agitan la calle con el odio y que quieren apropiarse de las legítimas reivindicaciones que se están realizando desde diferentes representantes populares.

Este sábado pasado mucha gente entorno a estas reivindicaciones nos manifestamos en Gasteiz. Fue una de las muchas ocasiones en las que se ha demostrado en la calle que es posible hacer causa común, desde muchos ámbitos sociales e incluso ideológicos, frente a la amenaza de desposesión de la tierra a la que nos enfrentamos. El adversario, poderoso y bien relacionado con las instituciones, nos llama *“perro flautas”*, término que también nos dedican esos fascistas y nazis. Es curiosa la coincidencia, será quizás porque en el fondo, estos no son más que los matones de aquellos.

Cuando reivindicamos que se respete el mundo rural y que este entorno no debe convertirse en territorio de sacrificio, lo hacemos desde el pleno convencimiento de que el campo no debe estar en una posición de inferioridad respecto al mundo urbano. Que es necesario un entorno rural bien conservado y un entorno natural bien protegido. Es un patrimonio de todas las personas y lo que el nuevo paradigma del capitalismo ha llamado *“transición verde”* no puede destruirlo. Por ello, la exigencia de que estas reivindicaciones sean vinculantes y la actividad del sector primario se entienda como estratégica y el entorno natural sea efectivamente respetado nos parece esencial.

La reivindicación que se oyó con fuerza el sábado en las calles de Gasteiz fue *“HORRELA EZ”*, quedaba claro. Pero hubo otro eslogan que quizás reflejaba con más contundencia la oposición a este acoso y derribo en beneficio de las grandes empresas, decía: *“LA ENERGÍA CAPITALISTA NUNCA SERÁ SOSTENIBLE”*.

Quedan claras pues, cuáles son las reivindicaciones y cuáles son los principios generales que nos unen: el respeto, el cuidado mutuo y la transversalidad. Ahí, ni están ni se les espera a esos fascistas y nazis, los mismos que no hace mucho tiempo convirtieron los ribazos y cunetas de nuestro campo en lugares de vergüenza e ignominia.

Rebeka González de Alaiza, Roberto Ruiz de Arkaute - Miembros de Araba Bizirik

VITORIA-GASTEIZ, 6 de Junio de 2024